

**INGURUMENEO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA**

<b>DEPARTAMENTUA</b>	Ingurumena eta Lurralde Antolaketa	<b>2013</b>	38.295.431 euro
		<b>2014</b>	32.053.648 euro

**PROGRAMA ETA ZENBATEKOA**

**Izena** Zerbitzu Orokorrak

**Kodigoa** 7.01

**Generoaren garrantzia** Gutxi

**Aurrekontua** 2.214.201

**1. Taula****Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta Departamentuaren portzentajea azken urteotan**

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA (mila eurotan)	1.202,77	2.751,73	2.082,28	2.124,20	128,78%	-24,33%	2,01%
% DPTUA. AURREKO.	2,44%	7,04%	5,44%	6,63%	188,52%	-22,72%	21,88%

Programa Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak duen aurrekontuaren %6,63 da.

**Programak jasotzen dituen helburuak, kolektiboak eta jarduerak**

Helburua: Departamentuari esleitutako berdintasun planaren neurriak ezartzea

Kolektiboak: Administrazioaren langileei zuzendutako jarduera. Hiritarrengan zeharkako eragina du bakarrik.

Jarduerak: Plana burutzeko lanen inguruko proposamen eta jarraipen bilerak koordinatzea.

Generoaren ikuspegia kontuan hartuz Departamentuko aurrekontu programen analisia koordinatzea .

Kontratazio prozesuetan generoaren ikuspegia jasotzea.

Diru laguntzak emateko prozesuetan generoaren ikuspegia jasotzea.

Departamentuaren komunikazio ikus-entzunezkoetan eta idatzietan genero hizkuntza berrikustea.

Sexua dela eta sakabanatutako datuen bilketa proposatzea.

Sexuaren arabera bereizitako datuen bilketa proposatzea, beharrezkoa den tokian.

**Analisi kuantitatiboak generoaren arabera**

Goian esan den bezala, programak ez du eragin zuzenik hiritarrengan, administrazioiko langileengan baizik. Departamentuari esleitutako planaren neurrien % 100 burutu nahi da 2014. urtean



**Analisi edo gogoeta kualitatiboa**

Departamentuari esleitutako Foru Aldundiko Berdintasun Planaren neurri zehatzak burutzen diren programetan egiten da analisi edo gogoeta kualitatiboa.

**INGURUMENEO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA****DEPARTAMENTUA** Ingurumena eta Lurralde Antolaketa**2013** 38.295.431 euro**2014** 32.053.648 euro**PROGRAMA ETA ZENBATEKOA****Izena** Pasaialdeko Antolaketa eta Sustapena**Kodea** 7.20**Generoaren garrantzia** Ertaina**Aurrekontua** 2.492.735**1. taula****Programaren aurrekontua eta azken urteetan Departamentuaren aurrekontuarekiko ehunekoa**

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
Gastua eurotan	3.827,22	3.496,17	4.010,00	2.492,74	-8,65%	14,70%	-37,84%
Departamentuaren aurre	8,92%	8,94%	10,47%	7,78%	0,23%	17,13%	-25,73%

**Programaren xedeak, hartzaileak eta jarduerak**

Programaren xedea da beste erakunde batzuekin lankidetzan jardutea, Pasaiaiko badia inguruko udalerrietan hirigintzaren ikuspuntutik degradatutako hiri eremuak berreskuratzeko eta biziberritzeko, eta baita ere beharrezko ekintzak bultzatzea, portuan egun erabiltzen ez diren espazioak eskura izateko – interes orokorreko azpiegitura–, hiri zentraltasun berriko guneak sortzeko, ekonomia eta gizartea biziberritze aldera.

Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak lankidetzat hitzarmen bat sinatu zuen Pasaiaiko Udalarekin 2007ko martxoaren 15ean, eta bertan jasotzen dira bi aldeek sustatu eta finantzatu dituzten jarduerak.

Hitzarmenean hogeita bat jarduera jasotzen dira eta horiei dagozkien inbertsioak hogeita lau milioi zazpiehun eta berrogeita bi mila ehun eta hirurogeita hamalau euro eta laurogeita hiru zentimokoak dira (24.742.174,83 €). Zenbateko horretatik, hogeita bat milioi hirurogeita hiru mila seihun eta laurogeita hamahiru euro eta laurogeita hamasei zentimo (21.063.693,96€ ) Foru Aldundiak jarriko ditu eta Pasaiaiko Udalak, berriz, hiru milioi seihun eta hirurogeita hemezortzi mila lauhun eta laurogei euro eta laurogeita zazpi zentimo (3.678.480,87€ ).

Finantzatu beharreko egintzetan sartzen dira dokumentu teknikoak idaztea nahiz lanak gauzatzea eta horiek zuzentzea; egintzak izapidetzearen eta gauzatzearen erantzukizuna Foru Aldundiaren eta Pasaiaiko Udalaren artean banatzen da edo, bestela, emakidaren titularrarena izango da.

Hitzarmenaren gauzatze maila eta aldeei egotzi ezin zaizkien gorabeherak ikusita, 2009ko urtarrilaren 22an erabaki zen aurreko hitzarmena ordeztuko zuen beste lankidetzat hitzarmen bat formalizatzea, Pasaia biziberritzeko zenbait jarduera koordinatzeko eta bultzatzeko; hitzarmenean jasota dago bi aldeek sustatu eta finantzatu beharreko jarduera multzoa.

Adierazi behar da hitzarmeneko bosgarren klausularen hirugarren paragrafoan hau adierazten dela:

*“Halaber, jarduerak finantzazio aldetik malguak direla ulertuko da eta soberakinak hitzarmeneko jardueren edo hitzarmenean sartuko diren jardueren artean banatu ahal izango dira. Nolanahi ere, ezin izango da gainditu hitzarmen honen bigarren klausulan Foru Aldundiarentzat finkatutako finantzazioa. Aldaketak eta doiketak horretarako sortzen den Jarraipen Batzordean finkatuko dira”.*



Bestalde, 2011ko abenduaren 15ean sinatu zen 2009ko urtarrilaren 22an sinatutako lankidetz hitzarmenaren 1. eranskina, lehenago aurreikusi ez zen egintza bat gehituta.

Hitzarmenean aurreikusitako jardueren xede zehatzak hauek dira:

- . Oinezkoen eta bizikletarien mugikortasuna hobetzea, Pasaia badiako udalerrien artean.
- . Garraio publikoaz baliatzeko aukera hobetzea.
- . Portuko trafiko astunak (industria jarduera) hiri trafikotik bereiztea.
- . Inguruan gizarte, kultura eta kirol ekipamenduak jartzea.
- . Hiri zentraltasun berri bat eratzea, portuko jarduerara bideratuta dauden eta orain erabiltzen ez diren lurretan.
- . Hiribideen eta bideen urbanizazioen kalitatea hobetzea, irisgarritasun irizpideekin.
- . Lur gaineko aparkalekuak jartzea.
- . Herritar guztien aisialdirako hiri parkeak sortzea.

Egun, zerbitzu honetan ez dakigu zein jarduera diren 2014an gauzatu beharrekoak, ez eta zein aurrekontu finantzatu behar den ere. Nolanahi ere, kontuan izanik 2013an egin beharreko jardueren gastua benetan aurreikusitako bi milioi eta hamar mila eurokoa izango dela (2.010.000,00 €), adostutako gastutik erabilgarri geratzen dira zazpi milioi lauhun eta hirurogeita hemezortzi mila berrehun eta bat euro (7.478.201,00 €).

Hortaz, aurrekontu osoaren % 36 geratzen da gauzatzeko.

### Generoaren azterketa kuantitatiboa

Hiri espazio publikoetan egiten diren esku-hartzeek, espazio irekietan nahiz eraikietan, gizon-emakumeen eguneroko bizimoduan eragiten dute; horregatik, bada, genero ikuspuntutik aztertu behar dira hiri espazioaren erabilera eta gozamina.

Esku-hartzeen hartzaileak Pasaia herritarra izanik, hasteko, Udalaren web orritik jasotako udal erroldako datuak aztertu ditugu, generoaren ikuspuntutik eta adin tarteen arabera:

*Adierazlea: 2012ko abenduaren 31ko errolda datuak*

### PASAI

Adin tartea	Emakumeak	Guztira %	Gizonak	Guztira	Guztira EG % % tarte	Guztira E % tarte	Guztira G % tarte
0 - 14	1.117	13,51	1.063	14,32	2.180	51,24	48,76
15 - 29	968	11,71	950	12,79	1.918	50,47	49,53
30-64	3.978	48,12	4.052	54,57	8.030	49,54	50,46
65 - 74	1.423	17,22	996	13,41	2.419	58,83	41,17
>=75	780	9,44	364	4,90	1.144	68,18	31,82
<b>Biztanle kopurua</b>	<b>8.266</b>	<b>52,68</b>	<b>7.425</b>	<b>47,32</b>	<b>15.691</b>		

Lehen irakurketan ikusten da udalerriko emakumeen ehunekoa 5,36 puntu handiagoa dela gizonenena baino (% 52,68 emakumeak eta % 47,32 gizonak).

Adin tarteen arabera, emakumeen ehuneko handiena (% 48,12) 30 eta 64 urte bitarteko tarteari dagokio, eta, ondoren, 65 eta 74 urte bitarteko tarte dator (% 17,22). Ehuneko txikiagoa dauka 0 eta 14 urte bitarteko tartea (% 13,51) eta ondoren datoz 15 eta 29 urte bitarteko (% 11,71) eta 75 urte eta gehiagoko tartea (% 9,44).

Pasaia emakumeen jarduerari dagokionez, Udalmap sistemak jarduera eta okupazio tasari buruzko 2006ko adierazleak islatzen ditu, sexuaren arabera bereizita. Uste dugu adierazle horiek desfasatuta daudela eta azterketari ez diela baliorik eransten.



### Gogoeta kualitatiboa

“GENEROA ETA POLITIKA PUBLIKOAK: AURREKONTUA GENERO IKUSPUNTUTIK” izeneko II. IKASTAROAREN laburpena (Interneten argitaratuta dago). Genero adierazleak obra publikoetan eta hirigintzakoetan. Gloria Alarcón andrea, Murtziako Unibertsitateko Arlo Publikoko Ogasuna eta Ekonomia Saileko irakaslea.

*Oinarrizko azpiegituren eremuan generoaren garrantzia aztertzeak berekin dakar ikustea, alde batetik, azpiegiturek nola eragiten dien emakumeei, haiek erabiltzerakoan eta beraien ongizatean, eta, bestetik, eskaintzen dien lanean duen eragina, lana sortuta edo rol femeninoak onartutako karga kenduta, azpiegitura horiek eskainitako zerbitzu publikoaren bidez.*

*Azpiegituretan generoarekin loturik dauden gaietako batzuk hauek dira:*

- \* Emakumeek **gehiegizko denbora-karga** pairatzen dute, zeregin asko dituztelako: ugalketari, produkzioari eta komunitate lanari lotutakoak*
- \* Emakumeek joera dute **parte-hartze murriztagoa** izateko erabakiak hartzerakoan.*
- \* Kultur faktoreen eta garraio eta diru baliabideen gaineko kontrol maskulinoaren alderdiak direla eta, emakumeek **mugikortasun txikia edo hutsa** izaten dute, askotan. Gainera, mugikortasuna aztertu denean eta aztertzen denean, pertsonak leku batetik bestera mugitzea da erabiltzen den ikuspuntua, lehentasuna emanik etxetik lanerako joan-etorriei, etxeko eginkizunetarako beharrezko direnen aldean.*
- \* **Segurtasuna**, nagusiki emakumeekin zerikusia duen gaia, oso gutxi hartzen da kontuan azpiegiturak diseinatzerakoan, kostu ekonomiko handia duten mantentze eta kontrol neurriekin lotuta dagoelako.*

*Emakumeentzako garrantzizkoak diren azpiegiturak:*

- \* Hiri espazioa (kaleak, plazak, lorategiak, espaloiak, seinaleak eta abar)*
- \* Etxebizitza (barneko eta kanpoko diseinua)*
- \* Mugikortasuna (garraio publikoak)*
- \* Segurtasuna (argiztapena, zaintza)*
- \* Zeregin “femeninoari” loturiko azpiegiturak*
  - - Adingabeen eta adinekoen zaintzak*
- \* Emakumeen eta nesken ongizatearekin loturiko azpiegiturak*
  - Aisia*
  - Kirola*
  - Kultura*

*Azpiegituretan egiten den gastuari buruzko politikek oso zeregin garrantzitsua daukate berdintasunean oinarritutako gizarte baten aldeko eredu aldaketa bultzatzeko ahaleginetan; izan ere, egiten diren azpiegituren arabera, sexu arteko desberdintasuna finkatzen duten rolen egiturazko aldaketa egin ahal izango da edo ez da egingo.*

Esku artean dugun aurrekontu programaren kargura gauzatu beharreko hiri eremua biziberritzeko jarduerak emakumeentzako garrantzitsuak diren azpiegituren baldintzak hobetzen dituzte.

Hiri eremu irisgarriak eratzeak eta hiri mugikortasuna hobetzeak eragina dute adingabeen eta adinekoen zaintzarako erabilitako denboran. Ekipamendu berriak erdigunean eratzeak eragina dauka emakumeen aisia denboran nahiz zaintza denboran, parkeak eratzeak bezalaxe. Hondatutako eremuak urbanizatzeko eta haiek hiri bilbean sartzeko puntu beltzak zuzentzeko aukera ematen dute, emakumeen segurtasunari dagokionez.

Kontuan hartuta, alde batetik, Pasaiako biztanleetatik % 58,68 emakumeak direla eta, bestetik, 30 eta 64 urte bitarteko tartean bateratzen direla jarduera publikotik nahiz pribatutik eratorritako emakumeen eginkizun asko, eta emakume kopuru handiena (% 48) tarte horretakoa dela, baieztatu dezakegu orokorrean programaren bidez finantzatutako diren jarduerak eta, bereziki, 2014an aurrera eraman beharrekoak egintza positiboak direla Pasaiako emakumeentzako.

**INGURUMENEO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA**

<b>DEPARTAMENTUA</b>	INGURUMENEO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA	<b>2013</b>	38.295.431 euro
		<b>2014</b>	35.053.648 euro

**PROGRAMA ETA ZENBATEKOA**

**Izena** Lurraldearen antolaketa eta sustapen orokorra

**Kodea** 7.22

**Generoaren garrantzia** Ertaina

**Aurrekontua** 2.848.819

**1. taula**

**Programaren aurrekontua eta azken urteetan Departamentuaren aurrekontuarekiko dagokion ehunekoa**

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA eurotan	2.059,00	1.688,66	2.048,71	2.848,82	-17,99%	21,32%	39,05%
Departamentuaren aurre	3,49%	4,32%	5,35%	8,89%	23,78%	23,89%	66,13%

**Programaren xedek, kolektibo hartzaileak eta jarduerak**

Aurrekontu programak Departamentuaren jarduera lerroak jasotzen ditu, hirigintzari, lurralde ereduari eta datu espazialen azpiegiturari dagokienez. Zenbatekoa langileen gastuetara eta inbertsio gastuetara bideratzen da bakarrik. Lehen, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko Departamentuaren azterketa eremua da eta guk bigarrena aztertuko dugu, 2013an programaren gastuaren % 39 hartzen duena, alegia.

913.726 euroko inbertsioa 4 jarduera nagusi hauetara bideratzen da:

- 1. Herrialdeko Oreka proiektua: 500.000 € (% 54,72)
- 2.- Lurraldearen azterketak eta planak: 81.316 € (% 8,9)
- 3. Hirigintzako espedienteen digitalizazioa: 26.304 € (% 2,88)
- 4.- Datu espazialen azpiegitura mantentzea: 306.107 € (% 33,5)

**1. 1.Herrialdeko Oreka (% 54,7)**

Jarduera horren zeregina da 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei zuzendutako diru laguntza programa mantentzea, lurralde oreka hobetzera bideratutako proiektuak egiteko. Hobekuntza hori obra, proiektu eta hirigintzako plangintzaren prestaketaren bidez gauza daiteke. Momentuz ezin dugu azaldu zer motatako udal jarduerak jasoko dituen, ez eta laguntzak jasotzeko erabiliko den lehentasun maila ere; hortaz, ezinezkoa zaigu azterketa zehatzago bat egitea.

**Kolektibo hartzaileak:** Gipuzkoako 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak

**2014ko aurrekontua:** 500.000 €

**2. Lurraldearen azterketak eta planak (% 8,9)**

Jarduera horren zati bat Tolosaldeko Lurraldearen Plan Partziala idaztera eta oraindik zehaztugabeko lurraldearen beste azterlan batzuk egitera bideratuko da. Tolosaldeko Lurraldearen Plan Partzialaren lan



eskala 1:20.000 da eta bertan adieraziko dira epe ertainean eskualdean hirigintza eta ingurumen arloan egingo den jardueraren ardatz orokor nagusiak. Geroago garatuko diren udal plangintzan eta lurraldearen arlo planetan xehetasunez ezarriko dira aipatutako orientazioak eta horien gainean egin ahal izango dira genero azterketak. Azterketa fidagarriagoa izango da, baldin legezko tresna horiek idazterakoan eta gauzaterakoan genero ikuspegia jasotzen hasiz gero.

**Kolektibo hartzaileak:** Herri administrazioak.

**2014ko aurrekontua: 81.316 €**

### **3. Hirigintzako espedienteen digitalizazioa (% 2,9)**

Jarduera horren zeregina da hirigintzako eta plangintzako espedienteak digitalizatzea. Xedea da pixkanaka digitalizatzea egun dagoen eta Hirigintzako Zerbitzuaren barne kontsumorako den informazio analogikoa, ez daukalako «*azken hartzaile bezala pertsona fisikorik edo juridikorik, eta horiei ez die eragiten baliabideak eskuratzeari edota haiek kontrolatzeari dagokienez*»; horregatik, uste dugu ez dagoela generoari egokitu beharrik eta, hortaz, ez ditugu aztertuko.

**Kolektibo hartzaileak:** GfAko Hirigintza Zerbitzua

**2014ko aurrekontua: 26.304 €**

### **4. 4.- Datu espazialen azpiegitura mantentzea (% 33,5):**

Programan jasota dago 3 jarduera nagusi hauek mantentzeko lanetarako behar den inbertsioa:

#### **4.1. Gipuzkoa azpiegitura geodesikoa.**

Hauek mantentzeko jarduerak: GNSS sentsoreak, sentsore meteorologikoak, itsas mailako sentsorea, GNSS estazio sareko seinale geodesikoak eta datu geodesikoak eta planimetria, altimetria eta grabimetriako erreferentziako seinaleak.

**Kolektibo hartzaileak:** Topografoak, ingeniariak, herri administrazioak eta, bigarren maila batean, alor zientifikoa.

**2014ko aurrekontua: 86.683 €**

#### **4.2. Gipuzkoako udal mapa**

Mugaketa lanak eta mugaleroetako mugarrak berrikusteko lanak.

**Kolektibo hartzaileak:** Herri administrazioak.

**2014ko aurrekontua: 23.934 €**

#### **4.3. Gipuzkoako datu espazialen azpiegitura**

Gipuzkoako datu espazialen azpiegiturak jasotzen ditu Gipuzkoako geografiari, topografiari, ortofotografiari, kartografia historikoari eta abarri buruzko datuak, metadatuak, zerbitzuak eta informazioa, eta haren mantentze lana da informazio mota hori eskuratzeko, prozesatzeko, biltegitatzeko eta banatzeko behar diren egintzak egitea. Informazioa, funtsean, bide telematikoz iristen da b5m.gipuzkoa.net atariaren bidez; gure bulegoetan eginiko kontsultaren bat edo besteren bidez ere iristen da.

**Kolektibo hartzaileak:**

Gipuzkoako herritar guztiei zuzenduta dago, nahiz eta Gipuzkoatik kanpoko erabiltzaileak ere izan. Horrela, adibidez, b5m.gipuzkoa.net ataria erabiltzen dutenen artean % 57 inguru gipuzkoarrak dira, % 16 Euskal Herriko gainerako lurraldeetakoak (Akitania barne), % 34 Estatukoak eta %3 Estatutik kanpokoak.

**2014ko aurrekontua: 208.006 €**

### **Generoaren azterketa kuantitatiboa**

#### **1. Herrialdeko Oreka**

Programa honetara aurkez daitezkeen udalerrriak Gipuzkoako udalerrien % 52 dira, baina biztanleei % 5,1 bakarrik hartzen dute. Horrek esan nahi du egin daitezkeen jarduerak Gipuzkoako emakumeen populazioaren % 4,53an izango duela eragina. Nagusiki landa udalerrriak diren horiek gainerako udalerriek



baino emakumea/gizona ratio txikiagoa dute. Izan ere, udalerrri horietan emakumeen populazioa % 47,45 da eta hiri izaera handiagoko gainerako udalerrietan, berriz, % 51,1. Adinaren arabera, alde handienak 0 eta 19 urte bitarteko emakumeen artean dago, emakumeen populazio portzentaje handiagoa dutelarik (% 20,64) aipatutako udalerrietan, Gipuzkoan biztanle kopuru zahartuagoa duten gainerako udalerrien aldean (% 17,34). Horregatik, adin horietako emakumeei bideratutako jarduerak, hasiera batean, eragin handiago izango dute.

## 2. Lurraldearen azterketak eta planak

Azterketetara bideraturako kontu sailaren hartzaileak zein diren jakin zain, bakarrik aipatu dezakegu lurraldearen plan partzialak Tolosaldea eskualdean zein eragin izango duen. Eskualdeak Gipuzkoako biztanleen % 6,6 hartzen zuen 2012an. Gipuzkoako gainerako eskualdeen aldean, Tolosaldeak 0 eta 19 urte bitarteko emakumeen populazioa Gipuzkoako gainerako eskualdeetako baino 0,9 puntu handiagoa da, 20 eta 64 urte bitartekoa 4 puntu txikiagoa eta 65 urte baino gehiagokoetan 3,8 puntu txikiagoa. Hortaz, eskualdeko emakumeen populazioa probintziako gainerakoa baino gazteagoa da eta etorkizunean egingo den lurralde proposamenak kontuan hartu beharko du alderdi hori.

## 4. Datu espazialen azpiegitura mantentzea

B5m.gipuzkoa.net ataria egunean batez beste 2.520 erabiltzaile desberdinek erabiltzen dute (2011-07tik 2013-07ra), baina ez daukagu erabiltzaileen daturik (generoa, adina, prestakuntza eta abar); izan ere, informaziorako sarbidea librea da eta erabiltzeko ez dago alta eman beharrik edo galdetegi bat bete beharrik. Uste dugu erabiltzaile gehienek erdi mailako eta goi mailako prestakuntza dutela, topografiako, ingeniariatzako, arkitekturako, funtzio publikoko eta abarretako profesionalek maiz erabiltzen baitute. Erabiltzaile generikoak ere baditugu aipatutako atarian eta beste web batzuetan, b5m.gipuzkoa.net atariko zerbitzuak integratuta baitaude Lurraldebusen, Dbusen, Mugipuzkoan, GipuzkoaMendizMendin, GureGipuzkoan eta abarretan.

Gipuzkoako herritar guztientzat denez, erabiltzaile potentzialen balioespen bat egin da, adina eta generoa kontuan hartuta, 16 eta 74 urte bitartekoen artean ohikoagoa baita internet erabiltzea. Ez ditugu kontuan hartu haurrak eta 74 urtetik gorakoak, internet gutxi erabiltzen baitute; baina horrek ez du esan nahi adin horietako erabiltzailerik ez dagoenik, horien eragina oso txikia dela baizik. Kontu sail horren inbertsioa ere eransten da, biztanleko eta erabiltzaile potentzialeko.

*Adierazlea: Iazko abenduaren 31ko errolda datuak. 2014ko aurrekontua 2012ko datuekin*

Urtea	2012	2013	2014	2014%
<b>Datu espazialen azpiegiturako inbertsioa</b>	380.000 €	300.000 €	305.000 €	
<b>Inbertsioa/biztanleko</b>	<b>0,53 €.</b>	<b>0,42 €</b>	<b>0,43 €</b>	
<b>Emakumeak Gipuzkoa</b>	363.595	364.669	364.669	
<b>16-24 adin tartea</b>	26.494	26.633	26.633	%7,30
<b>25-54 adin tartea</b>	155.855	154.327	154.327	%42,32
<b>55-74 adin tartea</b>	82.217	83.627	83.627	%22,93
<b>Emakumezko erabiltzaile potentzialak (16-74 adin tartea)</b>	<b>264.566</b>	<b>629.256</b>	<b>629.256</b>	<b>%72,80</b>
<b>Gizonak Gipuzkoa</b>	348.939	349.691	349.691	
<b>16-24 adin tartea</b>	27.977	27.922	27.922	% 8,00
<b>25-54 adin tartea</b>	161.173	159.257	159.257	% 46,20
<b>55-74 adin tartea</b>	76.594	77.999	77.999	% 22,00
<b>Gizonezko erabiltzaile potentzialak (16-74 adin tartea)</b>	<b>265.744</b>	<b>614.869</b>	<b>614.869</b>	<b>% 76,20</b>
<b>Inbertsioa/erabiltzaile potentziala</b>	<b>0,72 €.</b>	<b>0,24 €</b>	<b>0,25 €</b>	




Generoaren ikuspegitik emakumeen % 72,8 erabiltzaile potentzialak dira, gizonezkoen % 76,2ren aldean. 4,7 puntuko alde hori 2012ko abenduaren 31n Gipuzkoan zegoen biztanleen adin piramideagatik ematen da.

Interneten erabiltzaileen gaineko inkesta batean oinarrituta balioespena egiten badugu, balizko hartzaileen balioespena ere egin dezakegu.

*Adierazlea: Eustat: Informazioaren gizartearen inkesta eta abenduaren 31ko errolda datuak. 2014ko aurrekontua 2013ko datuekin.*

<b>Internet erabiltzaileak %</b>	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014%</b>
<b>15-34 adin tarteko emakumeak</b>	% 90	% 89	% 97	% 97
<b>35-54 adin tarteko emakumeak</b>	% 75	% 75	% 78	% 78
<b>55 urtetik gorako emakumeak</b>	% 17	% 19	% 23	% 23
<b>16-74 adin tarteko emakumeak</b>	<b>% 63</b>	<b>% 63</b>	<b>% 69</b>	<b>% 69</b>
<b>15-34 adin tarteko gizonak</b>	% 89	% 94	% 90	% 90
<b>35-54 adin tarteko gizonak</b>	% 72	% 77	% 84	% 84
<b>55 urtetik gorako gizonak</b>	% 25	% 28	% 39	% 39
<b>16-74 adin tarteko gizonak</b>	<b>65%</b>	<b>70%</b>	<b>75%</b>	<b>75%</b>
<b>Inbertsioa/erabiltzailea</b>	<b>1,90 €</b>	<b>1,08 €</b>	<b>0,79 €</b>	<b>0,80 €</b>

Taulan nabarmentzen da interneten erabileran dagoen aldea genero mailan. 2013an, eta pentsatzen dugu 2014an, Gipuzkoako emakumeen populazioaren % 69ak internet erabiliko zuela eta, hortaz, Gipuzkoako datu espazialen azpiegituraren erabiltzaile potentziala zela, gizonen populazioaren % 75aren aldean. Hau da, generoen artean % 6ko aldea dago, nahiz eta antzeman emakume gazteek internet gehiago erabiltzen dutela gizon gazteek baino. Eustaten 2003-2013 aldiko Gipuzkoari buruzko datuek erakusten dute ez duela ematen generoen arteko hutsarte digitala murrizten ari denik.



Kezkagarria da 2018rako eginiko proiektio lineala, aldea poliki-poliki handitzen ari delako. Emakume gazteen populazioa (15-34 adin tartea) gizonena gaintzen ari da eta ikusten da internet erabilgarria dela emakumeentzat (Eustaten inkesta); gizonen populazioak baino gehiago erabiltzen dute komunikatzeko (posta, txata, bideokonferentzia...) eta administraziora sartzeko eta prestatzeko. Nolanahi ere, aztertutako 10 urteko laginak adierazten du adin handiagokoetan handitzen ari direla bi generoen arteko aldeak.

Azterketaren beste ikuspegi bat da programa honen azpi-kontratazioan generoaren aldetik ematen den aldea, 2013ko emaitzek 2014ko proiektiorako balioko baitute. Kontuan hartuta kontratazioen % 90 profesional autonomo edo enpresa txikietara bideratuta dagoela, generoen arteko aldearen ratio batzuk aurkez ditzakegu. Ezin dugu genero mailako benetako dedikazioa aurkeztu; izan ere, ez daukagu datu fidagarriak enpresa txikietako teknikari bakoitzak egindako lanordu kopuruari buruz, baina pentsatzen dugu beste adierazle bat izan litekeela. 2014an 2013ko inbertsio berbera mantentzen da, horregatik, pentsatzen dugu kontratatutako teknikariek 2013koaren antzeko profila izango dutela.

*Adierazlea: Kontratututako teknikarien generoa. Gure datuak.*

Urtea	2009	2010	2011	2012	2013	2014
<b>Datu espazialen azpiegiturako inbertsioa</b>	1.365.000 €	935.000 €	650.000 €	370.000 €	300.000 €	310.000 €
<b>Profesionalak</b>	38	32	20	17	14	14
<b>Emakumeak %</b>	% 26,30	% 37,50	% 40,00	% 35,30	% 28,57	% 28,57
<b>Gizonak %</b>	% 73,70	% 62,50	% 60,00	% 64,70	% 71,43	% 71,43

Emaitzek adierazten dute emakume profesionalen ratioak ez duela inoiz % 40 gaintu eta, azken 5 urteetan, programak kontratatutako emakume teknikarien batez bestekoa % 32,17 ingurukoa dela. Ikusi egin behar da joera hori hurrengo urteetan egiaztatzen den, baina argi antzeman da 2009-2013 aldirian emakume gutxiago kontratatuzeko joera egon dela. Nahiz eta hasiera batean aurrekontua murrizteak programazio lanen eta nibelazio geometrikoko lanen murrizketa ekarri –alor horietan gizonen populazioa gehiengoa da–, aurrekontua pixkanaka murrizteak, krisia bere horretan jarraitzeak eta alorrean lanean ari



diren profesionalak murrizteak, emakume teknikariak desagertzea ekarri du. Desagertze horren arrazoia, beste eragile batzuen artean, izan daiteke kolektibo horretan lan ezegonkorra handia izatea.

### **Gogoeta kualitatiboa**

Erabiltzaile potentzialen nahiz kontratatutako langileen inguruko azterketak adierazten du aldeak daudela generoen artean. Erabilitako adierazleek ere adierazten dute alde horiek handitzeko joera dutela 2003tik 2013ra bitartean, baina oraingoz ez daukagu estatistika aldetik datu esanguratsurik.